

METRO BILBAO

IRAGARKIA, «Metro Bilbaoko geltokietako publizitate estatikoaren emakidaren kontrata» adjudikatzeko egingo den prozedura irekiko lehiaketaren berri emateko.

20000

METRO BILBAO

ANUNCIO por el que se da publicidad al concurso, por procedimiento abierto, para la adjudicación del Contrato de «Concesión de publicidad estática en las estaciones de Metro Bilbao».

20000

Xedapen Orokorrak**KULTURA SAILA****5645**

310/2005 DEKRETUA, urriaren 18koa, Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duena.

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak bere XII. tituluko I. kapituluan arautzen du Kirol Justiziako Euskal Batzordea, Euskadiko Autonomía Erkidegoan kirol-justiziaren arloko administrazio-organon nagusi gisa. Eusko Jaurlaritzan kirol arloko esku-menak dituen sailari atxikiko zaio Kirol Justiziako Euskal Batzordea, baina, hala ere, beregaina izango da sailarekiko, eta azken administrazio-azoidaldean erabakiak hartuko ditu bere eskumeneko gaiei buruz.

14/1998 Legea onartu zen arte, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eginkizunak Kirol Diziplinako Euskal Batzordeak burutzen zituen, kirol diziplinari buruzko arautegia onartzen duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuan xedatutakoari jarraituz. Nola 14/1998 Legeak aurreko Diziplinako Euskal Batzordearen eskumen-esparru estua handitu duen, eta gainera haren araubideko alderdi batzuk aldatu dituen, beharrezko da erregelamendu-esparru berri bat finkatzea Diziplinako Euskal Batzordearentzat.

Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 5eko 34/2002 Dekretuaren 2. j) artikuluak Kirol Justiziako Euskal Batzordea aipatzen du saileko kide anitzeko organo-en artean. Dekretuaren 12. artikuluak, bestalde, Kirol Zuzendaritzaren egitekoen artean honakoa jasotzen du: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion arautegien aurreproiektuak egitea, ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Eusko Jaurlaritzak 2003ko uztailaren 22an onartutiko Kirolaren Euskal Planean jasota dago Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortzea, hain zuzen kirola sus-

Disposiciones Generales**DEPARTAMENTO DE CULTURA****5645**

DECRETO 310/2005, de 18 de octubre, por el que se regula el Comité Vasco de Justicia Deportiva.

La Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, regula en el Capítulo I de su Título XII el Comité Vasco de Justicia Deportiva como órgano administrativo superior en materia de justicia deportiva en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Dicho órgano, adscrito orgánicamente al Departamento del Gobierno Vasco que ostenta competencias en materia deportiva, actúa con total independencia del mismo y decide en última instancia administrativa sobre las cuestiones de su competencia.

Hasta la aprobación de la citada Ley 14/1998, las funciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva han sido ejercidas por el Comité Vasco de Disciplina Deportiva sobre la base del Decreto 7/1989, de 10 de enero, por el que se aprobó el Reglamento de Disciplina Deportiva. En la medida en que la Ley 14/1998 ha ampliado el estrecho ámbito competencial del anterior Comité Vasco de Disciplina Deportiva y ha modificado algunos aspectos de su régimen, se hace preciso dotar al Comité Vasco de Justicia Deportiva de un nuevo marco reglamentario.

El Decreto 34/2002, de 5 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, en su artículo 2.j relativo a su organización departamental, contempla, entre sus órganos colegiados, al Comité Vasco de Justicia Deportiva. Por su parte, el artículo 12 del mismo establece, entre las funciones de la Dirección de Deportes, la de elaborar los anteproyectos de reglamentos que correspondan a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en virtud de lo dispuesto por la Ley 14/1998, de 11 de junio.

El Plan Vasco del Deporte, aprobado por el Gobierno Vasco el 22 de julio de 2003, en el apartado relativo a fomento y promoción del deporte, y más concre-

tatzeko eta bultzatzeko atalean eta, zehatzago, kirolaren euskal ereduaren balioak eta printzipio orokorrak bultzatzeari buruzko P2.04 ekintza-lerroan.

Alde horretatik, 14/1998 Legearen 141. artikuluan xedatzen denez, Legea garatzen duten araudi-xedapenek finkatuko dituzte Kirol Justiziako Euskal Batzordearen osaera eta jarduera. Legearen 4.2 artikuluak, halaber, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzea eta an-tolatzea Autonomia Erkidegoko erakunde komunelai dagokiela xedatzen du.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez, Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorri eta Jaurlari-zaren Kontseiluak 2005eko urriaren 18n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

1. artikulua.- Xedea

Dekretu honen xedea da arautzea Kirol Justiziako Euskal Batzordearen antolaketa, osaera, izendatzeko sistema, funtzionamendu araubidea eta zereginak.

2. artikulua.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen izaera

1.- Kirol Justiziako Euskal Batzordea Euskadiko Autonomia Erkidegoan kirol justiziaren arloko administrazio-organo nagusia da.

2.- Kirol Justiziako Euskal Batzordea Eusko Jaurlaritzan kirol arloko eskumenak dituen sailari atxikiko zaio, baina, hala ere, beregaina izango da sailarekiko eta ez da egongo hierarkikoki Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko inongo organoren mendeian. Batzordeak azken administrazio-auzialdian erabakiak hartuko ditu bere eskumeneko gaiei buruz.

3. artikulua.- Eskumenak.

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenak hauek izango dira:

a) Kirol-diziplinako ahalmena duten kirol organo titularren erabakien aurka jarritako erre Kurtsoak aztertzea eta ebaztea..

b) Kirol federazioetako hauteskunde-batzarren era-bakien aurka jarritako erre Kurtsoak aztertzea eta ebaztea.

c) Lehiaketa ofizialak bideratu, kalifikatu eta bai-mentzeari eta lizenziak trimitatu eta emateari dagoz-kiōn federazio-erabakien aurka jarritako erre Kurtso guztiak aztertzea eta ebaztea.

d) Administrazio-eginkizunak betetzean federazioen artean sor litezkeen auziak aztertzea eta ebaztea.

tamente en la línea de acción P2.04 relativa a la promoción de los valores y principios generales de modelo deportivo vasco, contempla la puesta en marcha del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

En esta línea, el artículo 141 de la Ley 14/1998, dispone que las disposiciones reglamentarias de desarrollo de la Ley concretarán la composición y el funcionamiento del Comité Vasco de Justicia Deportiva. Asimismo, el artículo 4.2 de la Ley atribuye a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma la competencia para la regulación y organización del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 18 de octubre de 2005,

DISPONGO:

Artículo 1.- Objeto del Decreto.

Es objeto del presente Decreto regular la organización, composición, sistema de designación, régimen de funcionamiento y las funciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

Artículo 2.- Naturaleza del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

1.- El Comité Vasco de Justicia Deportiva es el órgano administrativo superior en materia de justicia deportiva en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- El Comité Vasco de Justicia Deportiva, adscrito orgánicamente al Departamento del Gobierno Vasco que ostenta competencias en materia deportiva, actúa con total independencia del mismo, no estando sometido jerárquicamente a ningún órgano de la Administración de la Comunidad Autónoma. Dicho Comité decide en última instancia administrativa sobre las cuestiones deportivas de su competencia.

Artículo 3.- Competencias.

Son competencias del Comité Vasco de Justicia Deportiva las siguientes:

a) El conocimiento y resolución de los recursos que se deduzcan contra los acuerdos de los órganos deportivos titulares de la potestad disciplinaria deportiva.

b) El conocimiento y resolución de los recursos que se deduzcan contra los acuerdos de las juntas electorales de las federaciones deportivas.

c) El conocimiento y resolución de cualesquiera recursos contra acuerdos federativos relativos a la ordenación, calificación y autorización de competiciones oficiales y a la tramitación y emisión de licencias.

d) El conocimiento y resolución de los conflictos que se puedan suscitar entre las federaciones en el ejercicio de sus funciones de carácter administrativo.

e) Batzordeak, ofizioz edo Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren eskariz, gorago aipatutako gaien arretik aztertu beharreko ikusten dituenak aztertzea eta ebaztea.

4. artikulua.- Osaera.

1.– Sei kide titularrek osatuko dute Kirol Justiziako Euskal Batzordea. Zuzenbidean lizenziadunak eta kirol arloko lege-gaietan esperientzia handikoak izan beharko dute. Aipatutako sei kide titularrez gain, Batzordeak bi ordezko izango ditu, titularrak kanpoan edo gaixorik badaude, kargua uzten badute edo antzeko legezko beste edozein arrazoi suertatzen bada (heriotza, prozeduran parte ez hartzea, errefusatzea, etab.). Ordezkoko kideek titularren betekizun berberak konplitu beharko dituzte.

2.– Kirol Justiziako Euskal Batzordeko kideek presidente eta presidenteordea aukeratu beharko dituzte beren arretik.

3.– Kultura sailburuak izendatuko du, Kultura Saileko funtzionarioen arretik, batzordeko idazkaria, zeinak hitza izango baitu baina botorik ez. Idazkaria Zuzenbide lizenziaduna izango da. Kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste edozein arrazoi suertatzen bada, sailburuak ezaugarri berak dituen ordezko bat izendatu ahalko du funtzionarioen arretik.

5. artikulua.- Izendatzea, ordeztea, eginkizun-gabetzea eta kargu-uztea.

1.– Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak izendatu eta kargutik kenduko ditu Kirol Justiziako Euskal Batzordeko kideak, bai eta ordeztu edo eginkizunez gabetu ere.

2.– Batzordekideek jarduera bidegabeak edo beren eginbeharren alorrean ez-betetze larriak egiten badituzte, Kultura sailburuak haien eginkizunak eten ditzake, edo hala badagokio kargutik kenduko ditu, betiere kontraesaneko espedientea izapidetu ondoren.

6. artikulua.- Agintaldia

1.– Kirol Justiziako Euskal Batzordeko kideen agintaldia lau urtekoa izango da, haien izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeten deneik kontatzen hasita.

2.– Ordezkoko kideen agintaldia titularrei geratzen ziartzain denborakoa izango da, Batzordea berritu behar denean kide guztiak batera alda daitezen.

3.– Edozein arrazoi dela ere batzordea berritzea berandutzen bada, kargua uzten dutenek automatikoki jarraituko dute haien funtzioak betetzen luzapen egoeran, harik eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzaren ondorioz Batzordearen berritzea in-

e) El conocimiento y resolución de cuantas cuestiones sobre las materias precedentes estime tratar de oficio o a instancia de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco.

Artículo 4.– Composición.

1.– El Comité Vasco de Justicia Deportiva estará integrado por seis miembros titulares, licenciados o licenciadas en Derecho y con una reconocida experiencia en materia jurídico-deportiva. Además, dicho Comité estará integrado por dos miembros suplentes para cubrir los supuestos de ausencia, enfermedad o dimisión de las y los miembros titulares o cualquier otra causa legal (fallecimiento, abstención, recusación, etc.). Las y/o los miembros suplentes deberán reunir los mismos requisitos que quienes sean titulares.

2.– Las y los miembros titulares del Comité Vasco de Justicia Deportiva deberán elegir, de entre ellos, un Presidente o Presidenta y un Vicepresidente o Vicepresidenta.

3.– El Comité estará asistido por un Secretario o Secretaria, con voz pero sin voto, que se designará por la Consejera de Cultura, de entre el personal funcionario del Departamento de Cultura. La o el Secretario habrá de poseer la Licenciatura en Derecho. En caso de ausencia, enfermedad o cualquier otra causa legal, la Consejera podrá designar a otra persona de las mismas características, entre el personal funcionario para su sustitución.

Artículo 5.– Designación, sustitución, suspensión y ceses.

1.– Las y los miembros del Comité Vasco de Justicia Deportiva serán designados, cesados, suspendidos o sustituidos por la Consejera de Cultura del Gobierno Vasco.

2.– En el caso de que las y los miembros del Comité incurran en manifiestas actuaciones irregulares o graves incumplimientos de sus obligaciones se les podrá suspender o, en su caso, cesar, por la Consejera de Cultura, previa la tramitación del expediente contradictorio correspondiente.

Artículo 6.– Mandato.

1.– La duración del mandato de las y los miembros del Comité Vasco de Justicia Deportiva será de cuatro años, computándose dicha duración a partir de la fecha de la publicación de su designación en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– La duración del mandato de las y los miembros sustitutos será igual a la que restara por cumplir a quien sustituya, al objeto de que la renovación del Comité se haga en bloque.

3.– En el supuesto de que se demore por cualquier causa la renovación del Comité, las y los cesantes entrarán automáticamente en situación de prórroga y seguirán desempeñando sus funciones hasta que la renovación tenga efectividad por la publicación correspon-

darrean jartzen den arte. Luzapenak urtebete iraungo du gehienez.

7. artikulua.— Batzordeko kideen eskubide eta betebeharra.

1.— Batzordekideek bileretara joateko betebeharra dute.

2.— Batzordekideren batek ezin baditu, aldi batez, bere funtzioko bete, horren berri eman behar dio Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari, bitarte horretan ordezko batek haren funtzioko egiteko deialdia egin dadin.

3.— Kirol Justiziako Euskal Batzordeko kideen karguak ohorezkoak dira, ez soldatapekoak. Bakarrak jardueran jarduerako dieta eta gastuak ordainduko dira.

8. artikulua.— Antolaketa

1.— Kirol Justiziako Euskal Batzordeak osoko bilkuran edo atalen bidez jardun ahal izango du.

2.— Kide titular guztiak osatzen duten osoko bilkuriari dagozkio, nolanahi ere, honakoak:

a) Barne-araudiaren proiektua aldez aurretik onartzea.

b) Atalak sortzea eta ezabatzea, bai eta horietako baikoitzaren kideak izendatzea ere.

c) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren eskariz bideratutako espediente guztiak aztertzea eta ebaztea.

d) Atalean ataleko presidentearen aburuz garrantzi berezia dutelako osoko bilkuran ebaztekoak diren erre-kurtsoak aztertzea eta ebatza. Goragokoak eskumenak bereganatzeko arrazoitu egin behar du beti erabakia, eta indarreko legedian ezarritako betekizunak konplitu behar ditu.

e) Auziak atalen artean banatzeko irizpideak eta txosten-txandak onartzea.

3. Kirol Justiziako Euskal Batzordeko Atalek hiruna kide izango dituzte. Kide horien artean aukeratuko dute Batzordeko presidenteak edo burua.

9. artikulua.— Eratzea

1.— Kirol Justiziako Euskal Batzordearen osoko bilkura balio osoz eratzeko, beharrezkoa da presidenteak —edo haren ordez presidenteordea—, idazkaria eta gutxienez hiru kide izatea.

2.— Atalak balio osoz eratzeko, beharrezkoa da bi kide eta idazkaria izatea. Presidentea kanpoan edo gaixorik badago, edo behin-behineko legezko beste edozein arrazoi suertatzen bada, Batzordean urte gehien daratxan kideak burutuko ditu haren funtzioko, edo, halakorik ezean, kiderik zaharrenak

diente en el Boletín Oficial del País Vasco. La prórroga no podrá exceder en cualquier caso de un año.

Artículo 7.— Deberes y derechos de las y los miembros.

1.— Las y los miembros del Comité tienen el deber de asistir a sus sesiones.

2.— En el supuesto de que cualquiera de las y los miembros del Comité se vea imposibilitado de ejercer sus funciones transitoriamente deberá comunicarlo a la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco al objeto de convocar a la o el correspondiente miembro suplente para que asuma transitoriamente sus funciones.

3.— Los cargos de miembros del Comité Vasco de Justicia Deportiva tendrán carácter honorífico y no serán remunerados, devengando tan sólo las dietas y los gastos que en razón de la actividad tuvieran lugar.

Artículo 8.— Organización.

1.— El Comité Vasco de Justicia Deportiva podrá actuar en Pleno y Secciones.

2.— Correspondrá al Pleno, formado por la totalidad de miembros titulares, en todo caso:

a) La aprobación previa del proyecto de Reglamento de Régimen Interior.

b) La creación y supresión de las Secciones, así como la designación de miembros de cada una de ellas.

c) El conocimiento y resolución de todos los expedientes incoados a instancia de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco.

d) El conocimiento y resolución de aquellos recursos que la o el Presidente de la correspondiente Sección considere, por su trascendencia, deban resolverse por el Pleno. El acuerdo de avocación, a adoptar por el Pleno, deberá ser motivado y cumplir los requisitos establecidos en la legislación vigente.

e) La aprobación de los criterios de reparto de asuntos entre Secciones y el turno de ponencias.

3.— Las Secciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva estarán formadas por tres miembros que elegirán, entre ellas y ellos, al Presidente o Presidenta de la Sección.

Artículo 9.— Constitución.

1.— El Pleno del Comité Vasco de Justicia Deportiva quedará válidamente constituido con la presencia de la o el Presidente, o en su defecto de la o el Vicepresidente, el Secretario o Secretaria y la de, al menos, tres de sus miembros.

2.— Cada Sección quedará válidamente constituida con la presencia de dos de sus miembros y el Secretario o Secretaria. En caso de ausencia u otra causa legal de carácter provisional de la o el Presidente, asumirá sus funciones la o el miembro con mayor antigüedad dentro del Comité o, en su defecto, la o el miembro de mayor edad.

10. artikulua.- Bateraezintasunak

Hauek dira batzordekide karguarekin dauden bateraezintasun-arrazoiak:

a) Funtzionario edo langile gisa kirol alorrean eskumenak edo eginkizunak dituen Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde edo organo bati (publikoa zein privatu) atxikitzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko kirol diziplinako organoren batean parte hartza

c) Euskal Autonomia Erkidegoko kirol klub, elkarreko edo federazioren batean edo antzeko erakunderen batean zuzendaritza kargurik edo kargu teknikorik izatea, baita ere kirol federazioaren bateko arbitroen edo epaileen elkargoan parte hartza.

d) Oro har, indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen bateraezintasun-arrazoiak.

11. artikulua.- Abstentitzeko edo errefusatzeko arrazoiak

Batzordekideei indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen abstentzio eta errefusatze arrazoiak aplikatulko zaizkie.

12. artikulua.- Presidentearen funtziak.

1.- Osokoaren presidenteari dagokio:

a) Batzordearen ordezkaritza egitea egintza eta izapide guztietan, edozein erakunde, organismo, entitate edo pertsonaren aurrean.

b) Kirol Zuzendaritzara jotzea, kide titularra kanpoan edo gaixorik dagoela-eta bajan badago horren ordezkoia izendatzeko.

c) Batzordearen lana egokia dela begiratzea, alorreko gaien gaineko arauak betez eta betearaziz, Batzordearen funtzionamendu ona bermatuko duten neurriak hartuz, auziak taxuz bideratuz eta batzordekideek bere egitekoak zuzen betetzen dituztela zainduz.

d) Bilkurak deitza, zuzentza eta bertako eztabaidak bideratzea.

e) Bere karguarekin loturiko antzeko beste edozein eginkizun.

2.- Atal bakoitzeko presidenteari aurreko eginkizun horiek guztiak dagozkio, b) letrakoak izan ezik.

13. artikulua.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidenteordearen funtziak

Presidentea kanpoan edo gaixorik badago edo antzeko legezko beste edozein arrazoi suertatzen bada (heriotza, prozeduran parte ez hartza, errefusatza, etab.), presidenteordeak harti ditu bere gain aurreko artikuluaren aipatutako funtziak.

14. artikulua.- Idazkariaren funtziak.**Artículo 10.- Causas de incompatibilidad.**

Serán causas de incompatibilidad con el desempeño del cargo de miembro del Comité las siguientes:

a) La adscripción como funcionario, funcionaria o trabajador, trabajadora a órgano o entidad, pública o privada del País Vasco con competencias o funciones en materia deportiva.

b) La pertenencia a un órgano disciplinario deportivo en el País Vasco.

c) El desempeño de un cargo directivo o técnico en algún Club, Agrupación, Federación deportiva u otra entidad análoga del País Vasco, así como la pertenencia al colegio de árbitros o jueces de alguna federación deportiva.

d) En general, cualquier otro supuesto de incompatibilidad previsto en la legislación vigente.

Artículo 11.- Causas de abstención y recusación.

A las y los miembros del Comité les serán aplicables las causas de abstención y recusación previstas en la legislación vigente.

Artículo 12.- Funciones del Presidente.

1.- A la o el Presidente del Pleno le corresponde:

a) Representar al órgano en toda clase de actos y trámites ante cualquier institución, organismo, entidad o persona.

b) Requerir a la Dirección de Deportes para la sustitución de una o un miembro titular por suplente en caso de baja temporal por ausencia o enfermedad.

c) Cuidar del buen funcionamiento del Comité cumpliendo y haciendo cumplir las normas que regulan la materia de su competencia, adoptando las decisiones que garanticen el buen orden del Comité, el normal despacho de los asuntos y velando por que las y los miembros del Comité cumplan debidamente sus funciones.

d) Convocar y presidir las sesiones, dirigiendo sus deliberaciones.

e) Realizar cualquier otra función análoga relacionada con su cargo.

2.- Son aplicables al Presidente o Presidenta de cada Sección las anteriores funciones, salvo la del apartado b).

Artículo 13.- Funciones de la o el Vicepresidente del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

Las funciones relacionadas en el artículo anterior deberán ser ejercidas transitoriamente por la o el Vicepresidente en caso de ausencia, enfermedad o cualquier otra causa legal (fallecimiento, abstención, recusación, etc.) de la o el Presidente.

Artículo 14.- Funciones del Secretario o Secretaria.

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko idazkariari dagokio:

- a) Beharrezko laguntza ematea osoko bilkurako eta ataletako kideei.
- b) Posta ofizialaren ardura eta horren erregistroarena.
- c) Izapide hutsezko komunikazioak sinatzea eta bideratzea.
- d) Presidentearen oniritzia jaso eta gero, bidezko ziurtagiriak egitea, bai eta interesatuak eskatutako lekukotasunak ere.
- e) Pertsona edo erakunde interesatuek aurkeztutako ahalorde eta beste agirien banakapena egitea.
- f) Presidentearen edo presidenteordearen deialdiak bideratzea, bilkurak egiteko eguna, ordua eta gai-zerrenda zehaztuta.
- g) Izapide guztiak zorrotz-zorrotz betetzen direla egiaztatzea, eta forma-akatsak izanez gero haien gainezko ohartarazpenak egitea.
- h) Espedienteen laburpenak (labur baina osoki) presentzea, batzordekideak jakitun egon daitezen.
- i) Batzordekideen artean gaiak banatzea eta txostenak esleitzea, aurretik ezarrita dagoen txanda-hurrenkeraren arabera.
- j) Batzordearen dokumentazioa eta artxiboak gordetea eta zaintzea.
- k) Pertsona edo erakunde interesatuei Batzordearen ebatzen jakinaraztea.
- l) Batzordearen osokoaren edo atalen bilkuretan parte hartzeara eta horien fede ematea.
- m) Batzordeak, presidentearen bidez, funtzionamendua hobetzeko agintzen dion eta bere karguari dagozkion beste edozein funtzio.

15. artikulua.— Osokoaren eta atalen bilkurak eta beste jarduerak.

1.— Osokoaren eta atalen bilkurak Batzordearen egoitzan egingo dira, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzan, non eta presidentearen proposamenez ez den beste lekuren bat aukeratzentzat halako bilkura jakin bat egiteko.

2.— Gainerako jarduketak Batzordearen egoitzan egingo dira, salbu eta izaera berezikoa direlako nahietaez beste lekuren batean egin beharra dutenak.

3.— Bilkuretan gai-zerrendako eztabaidagaiak baino ezingo dira aztertu.

Al Secretario o Secretaria del Comité Vasco de Justicia Deportiva le corresponden las siguientes funciones:

- a) Prestar a las y los miembros del Pleno y de las Secciones la asistencia necesaria.
 - b) Llevar la correspondencia oficial y el registro de la misma.
 - c) Firmar y expedir las comunicaciones de mero trámite.
 - d) Expedir, con el visto bueno de la o el Presidente, las certificaciones que procedan, así como los testimonios y copias que se soliciten por parte interesada.
 - e) Realizar los desgloses de poderes y otros documentos presentados por las personas o entidades interesadas.
 - f) Cursar las convocatorias de la Presidencia, o Vicepresidencia, señalando día y hora de las sesiones, así como el orden del día de las mismas.
 - g) Cuidar de la estricta observancia de todos los trámites y advertir sobre aquellos defectos de forma que estime se hayan producido.
 - h) Preparar de forma concisa y completa los apuntamientos de los expedientes para conocimiento de las o los correspondientes miembros del Comité.
 - i) Llevar el reparto de asuntos y asignación de ponencias entre las y los miembros del Comité, de acuerdo con el sistema de turno que aquéllos o aquéllas tengan establecido.
 - j) Conservar y custodiar la documentación y archivos del Comité.
 - k) Notificar a las personas o entidades interesadas las resoluciones del Comité.
 - l) Asistir a las sesiones del Comité constituido en Pleno o en Secciones, dando fe del desarrollo de las mismas.
 - m) Realizar cualquier otra función relacionada con su cargo que se ordene por el Comité a través de la o el Presidente y resulte conveniente para el mejor funcionamiento del mismo.
- Artículo 15.**— Sesiones y demás actuaciones del Pleno y de las Secciones.
- 1.— Las sesiones del Pleno y de las Secciones tendrán lugar en la sede del Comité, sita en la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco, salvo que a propuesta de la Presidencia se señale otro lugar diferente para la celebración de alguna sesión concreta.
 - 2.— Las demás actuaciones se realizarán en la sede del Comité, salvo aquellas que por su naturaleza se deban practicar necesariamente en otro lugar.
 - 3.— En las sesiones sólo podrán debatirse las cuestiones que hayan sido incluidas en el Orden del Día.

4.– Salbuespenez, batzordekide guztiak bertan bidaude eta halako gai jakin bat gehiengoz urgentziatz-kotzat jotzen bada, gai-zerrendatik kanpoko auziak ere eztabaidea daitezke.

5.– Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, expedienteak bideratzerakoan, indarrean dagoen legediari egokitzentzaizkion komunikazio telematikoko baliabideak aplikatuko ditu. Baliabide horiek erabiliko dira bai hirugarren pertsonekiko edo erakunde interesatuekiko harremanetan bai barrura begira batzordekideen arteko harremanetan. Kasu biotan, administrazioaren jardunaren gainean indarrean dauden legezko printzipioak bermatuko dira.

16. artikulua.– Expedienteak bideratzea.

Espedienteak honela bideratuko dira:

1.– Behin errekursoa aurkeztu eta gero edo expedientea jaso eta gero, idazkariak horren laburpena egingo du, eta nahitaezko betebeharra konplitu diren ala ez zehaztuko du.

2.– Expedientea, laburpena eta guzti, osokoko presidenteari edo dagokion ataleko presidenteari emango zaio, dekretu honetan eta bera garatzeko lege-xedapenetan ezarritako irizpidearen arabera.

3.– Expedientea esleitu ondoren, dagokion batzar-kide txostengileari emango zaio, ezarritako banaketa-irizpidearen arabera.

4.– Expedientea jaso eta hogeita hamar egun baliodun baino lehen, txostengileak bidezko ebaZen-proposamena emango du. Bertan, aukera hauetakoren batzen alde egingo du:

a) Errekursoa izapidezko eskaria atzera bota, prozeduraren nahitaezko betekizunak ez konplitzeagatik, aurreko auzialdiak ez agortzeagatik edo errekursoa Batzordearen eskumenetik at egoteagatik.

b) Errekurso-egileari eskatu hamar egun baliodun baino lehen aurkeztu duen dokumentazioa osa dezan edo, forma-akatsik egin badu, horiek zuzendu ditzan, beti ere akatsok ez badira errekursoaren izapideztea atzera botatzeko adinakoak. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, horrela egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, eta jarduketak artxibatu egingo direla.

c) Errekursoaren izapideztea onartu, eta errekurritutako alderdia jakinaren gainean jarri, hamabost egun balioduneko epean alegazio-idazkia aurkez dezan eta, hala badagokio, bidezkoak iritzitako frog-a-eginbideak proposa ditzan.

5.– Txostengileak, ofizioz edo alderdi interesatuen eskariz, beharrezkoak iritzitako frog-a-eginbideak agindu ahalko ditu, behin betiko ebaZen eman baino lehen gertaerak goitik behera argitzeko.

4.– Excepcionalmente, estando presentes la totalidad de miembros y declarada la urgencia del asunto con el voto favorable de la mayoría podrán ser objeto de deliberación o acuerdo asuntos no incluidos en el Orden del Día.

5.– El Comité Vasco de Justicia Deportiva, en la tramitación de expedientes aplicará los mecanismos de comunicación telemática que se adecuen al marco legal vigente. El empleo de tales mecanismos se extenderá tanto a sus relaciones con terceras personas o entidades interesadas, como a las relaciones internas de sus propios o propias miembros garantizándose, en todo caso, los principios legales que rigen en la actuación administrativa.

Artículo 16.– Tramitación de los expedientes.

La tramitación de los expedientes se realizará en la siguiente forma:

1.– Presentado el recurso o recibido el expediente, La o el Secretario realizará el apuntamiento del mismo, haciendo constar si se han cumplido los requisitos insubsanables.

2.– El expediente, con su apuntamiento, será entregado al Presidente o Presidenta del Pleno o de la Sección que corresponda, según los criterios contenidos en este Decreto y en las normas de desarrollo.

3.– Atribuido el expediente, será entregado a la o el miembro a quien le corresponda la ponencia, según el criterio de reparto establecido.

4.– En el plazo máximo de treinta días hábiles desde la recepción del expediente, la o el ponente evacuará la correspondiente propuesta de resolución en cualquiera de los sentidos siguientes:

a) Rechazar la admisión a trámite del recurso por no haberse cumplido los requisitos insubsanables del procedimiento, no haberse agotado las correspondientes instancias previas o no ser objeto el recurso de las competencias del Comité.

b) Requerir a la parte recurrente a que en el plazo de diez días hábiles complete la documentación aportada o subsane los defectos formales en que hubiera incurrido siempre que no fueran de la entidad suficiente para rechazar la admisión a trámite del recurso, con apercibimiento de que se le tendrá por desistido de su petición y se procederá al archivo de las actuaciones.

c) Admitir a trámite el recurso dando traslado a la parte recurrida o denunciada a fin de que en el plazo de quince días hábiles presente el oportuno escrito de alegaciones y proponga, en su caso, las diligencias de prueba que estime convenientes.

5.– La o el Ponente, de oficio o a instancia de parte interesada, podrá ordenar la práctica de las diligencias de prueba que estime necesarias para un total esclarecimiento de los hechos antes de dictar la resolución definitiva.

6.– Froga egiteko epea hamabost egun baliodune-koia izango da gehienez, onartzen denetik aurrera kontatuta. Behar bezala frogaturiko salbuespenetan, epe hori luzatu ahal izango da.

7.– Presidentearen aburuz errekursoaren gaiak hortetarako bidea ematen duenean, adituen iritziak jaso daitezke. Pertsona horiek, baina, behartuta egongo dira prozeduraren gaineko sekretua gordetzen.

8.– Errekurso bat izapidetzen denean jatorrizko expedientearen ez dauden egitate edo agiriak –kontuan hartzekoak– agertzen badira, interesatuak jakinaren gainean jarriko dira, bidezkoak iritzitako alegazioak, dokumentuak eta ziurtagiriak aurkez ditzaten. Hori egiteko epea ez da izango hamar egunetik beherakoa, ezta hamabost egunetik gorakoa ere. Errekursoak ebazterakoan ez dira aintzat hartuko aurkeztekotzaukera izan arren errekurso-egileak aurkeztu ez dituen egitate, agiri edo alegazioak.

9.–urreko izapideak bete ondoren, txostengileak behin betiko ebazpen-proposamena aurkeztuko du, eztabaidatu eta gero epaitza eman dadin.

10.– Batzordeak ofizioz edo Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren eskariz hasitako expedienteetan eta kirol federazioen arteko eskumen-auziei buruzko expedienteetan, behin prozeduraren instrukzioa egin ondoren eta ebazpen-proposamena idatzi baino lehen horien berri emango zaie interesatuei edo, hala badagokio, haien ordezkariei, entzunak izateko eskubidea gauzatu ahal izan dezaten indarrean dagoen legediaren arabera.

11.– Expedientea jakinaraztea eta ebazpena ematea lehenbailehen egin behar direnean eta arrestian adierazitako prozedura estu-estu aplikatuta kalte konponezina sortaraziko balitz, Batzordeak izapidetze laburragoa erabaki dezake, eta horrela epe guztiak murriztu Batzordeak beharrezkotzat jotzen duen neurrian.

17. artikulua.– Kautela-neurriak.

1.– Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, alderdi interesatuen eskariz edo ofizioz eta expedientearen instrukzioaz arduratzeten den txostengileak proposatuta, kautela-neurriak hartzeko agindu ahal izango du, epaitza benetan eraginkorra izango dela bermatzeko edo kalte-galeria konponezinak ekiditeko

2.– Kautela-neurriak errekursoarekin batera eskatuko dira, jeneralean. Baino eskatzaileak urgentzia eta premiatasuna behar bezala frogatzen baditu, errekursoaren aurretik ere eska litzke kautela-neurriok.

3.– Oro har, Batzordeak kautela-neurriak eskatzea aginduko du, baldin eta lehen aipaturiko betekizunak gertatzen badira, aldez aurretik pertsona interesatu guztiei entzun eta gero. Salbuespena izango da, ordea, urgentziako arrazoia direla-eta aldez aurreko entzunaldiak kautela-neurriaren helburua bera kolokan jar dezakeenean.

6.– El plazo para la práctica de la prueba no podrá exceder de quince días hábiles contados a partir de su admisión. En supuestos excepcionales suficientemente acreditados podrá prorrogarse dicho plazo.

7.– Cuando la materia del recurso lo requiera, a juicio de la Presidencia, podrán ser oídas personas expertas, estando obligadas éstas a guardar secreto sobre el procedimiento.

8.– Cuando en la tramitación de un recurso hayan de tenerse en cuenta nuevos hechos o documentos no recogidos en el expediente originario, se pondrán de manifiesto a los interesados para que, en un plazo no inferior a diez días ni superior a quince, formulen las alegaciones y presenten los documentos y justificantes que estimen procedentes. No se tendrán en cuenta en la resolución de los recursos, hechos, documentos o alegaciones del recurrente, cuando habiendo podido aportarlos no lo haya hecho.

9.– Cumplidos los trámites que anteceden, la o el Ponente presentará para su deliberación y fallo la correspondiente propuesta de resolución definitiva.

10.– En los expedientes que el Comité acuerde incoar de oficio o a instancia de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco y en los expedientes relativos a los conflictos competenciales entre las federaciones deportivas, instruido el procedimiento, e inmediatamente antes de redactar la propuesta de resolución, se pondrán de manifiesto a los interesados o, en su caso, a los representantes para que puedan ejercer su derecho de audiencia en los términos previstos en la legislación vigente.

11.– En aquellos expedientes cuyo conocimiento y resolución fuese urgente y la aplicación del procedimiento anterior sea susceptible, por las circunstancias concurrentes, de causar un perjuicio irreparable, el Comité podrá acordar una tramitación abreviada en la que todos los plazos quedarán reducidos en los términos que el Comité considere necesarios.

Artículo 17.– Medidas cautelares.

1.– El Comité Vasco de Justicia Deportiva, a instancia de parte interesada o de oficio, a propuesta de la o el Ponente encargado de la instrucción del expediente, podrá ordenar la adopción de medidas cautelares que fueran precisas para salvaguardar la efectividad del fallo o para evitar un daño o perjuicio irreparable.

2.– Las medidas cautelares se solicitarán, de ordinario, junto con el recurso. Podrán también solicitarse medidas cautelares antes del recurso si quien en ese momento las pide acredita razones de urgencia y necesidad.

3.– Como regla general, el Comité proveerá a la petición de medidas cautelares, si concurren los requisitos antes citados, previa audiencia de todas las personas interesadas, salvo que concurran razones de urgencia y que la audiencia previa pueda comprometer el buen fin de la medida cautelar.

4.- Erabakitako kautela-neurriak indarrean egongo dira expedientea izapidezen den bitartean, harik eta behin betiko ebazpenaren bidez berretsi edo bertan behera uzten diren arte. Alabaina, prozedurak irauten duen bitartean, administrazioaren kabuz zein interesdunak eskaturik, behin-behineko neurriak aldatu edo kendu ahal izango dira, baldin eta neurriak hartu zirenean kontuan hartu ezin ziren gorabeherak edota gerora agertutakoak azaltzen badira.

18. artikulua.- Ebazpenak

1.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak bertako bilkuretan emango dira, aldez aurretik eztabai-datu eta bozketa egin ondoan. Erabakitakoaren gaine-ko bidezko akta egingo da. Bozketan parte hartzten duten kideek erabakitakoa sinatuko dute, nahiz eta ados ez egon gehiengoaren iritziarekin.

2.- Batzordearen ebazpen guztiak arrazoituak izango dira, lege-xedapenaren testua justifikatzen dituzten gertakariak eta legezko oinarriak labur adierazita, eta bidezko errekursoen aipamena eginda.

3.- Ebazpenak hartzeko, bilkuran parte hartzten duten kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko da. Berdinduz gero, presidentearen botoak garbituko du berdinketa, nahiz eta erabakitakoarekin bat ez datozen kideek eskubidea izango duten beren boto partikularra erabakiari eransteko. Kide guzti-guztiekin eman behar dute botoa.

4.- Boto partikularra bozketa egiteko unean iragar daiteke, eta boto-emailearen sinadura eraman behar du. Boto partikularra berrogeita zortzi ordu pasa baino lehen aurkeztu behar da idatziz; ebazpenari erantsiko zaio eta alderdiei jakinaraziko zaie gehiengoz onarturiko testuarekin batera.

5.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenek administrazio-bidea amaitzen dute. Beraz, haien aurka administrazioarekiko auzien jurisdikzioan baino ezin da errekurritu.

19. artikulua.- Ebazpen argigarriak eta zuzenketak

1.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ezin izango ditu ebazpenak aldatu, behin sinatu eta gero; bai ordea, ebazpenok argitu. Alderdi interesatu batek esku-tu behar du argitzea, ebazpena jakinarazi den egunaren biharamunetik harako bi egun balioduneko epean horetarako eskaria idatziz egin ostean.

2.- Soilik kontzeptu lausoak argitu ahal izango dira; zuzendu, ebazpenak dituen huts materialak zuzen-du ahal izango dira.

3.- Argibideak eta zuzenketak hamar egun baliodu-neko epean egin beharko ditu Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, eskabidea jasotzen den egunaren biharamunean kontatzen hasita.

20. artikulua.- Ebazpenen berri ematea

4.- Las medidas cautelares otorgadas subsistirán mientras dure la tramitación del expediente, hasta ser ratificadas o dejadas sin efecto en la resolución definitiva del mismo. Sin embargo, podrán ser alzadas o modificadas durante la tramitación del procedimiento, de oficio o a instancia de parte, en virtud de circunstancias sobrevenidas o que no pudieron ser tenidas en cuenta en el momento de su adopción.

Artículo 18.- Resoluciones.

1.- Las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva se adoptarán en sesión del mismo, previa deliberación y votación, levantándose la correspondiente acta expresiva de los acuerdos adoptados. Las y los miembros que tomen parte de la votación firmarán lo acordado, aunque hubieran disentido de la mayoría.

2.- Todas las resoluciones del Comité deberán ser motivadas, con expresión sintetizada de los hechos y de los fundamentos legales que justifiquen el texto dispositivo, indicando en su caso los recursos procedentes.

3.- Los acuerdos requerirán el voto favorable de la mayoría de las y los miembros asistentes a la sesión, siendo dirimente el voto de la o el Presidente en caso de empate y quedando siempre a salvo el derecho de las y los disidentes que estuvieren presentes a incluir en el acuerdo su voto particular. Ninguno de las y los miembros podrá abstenerse de votar.

4.- El voto particular podrá anunciarse en el momento de la votación y contará con la firma de autor o autora. Dicho voto particular se aportará por escrito en el plazo máximo de cuarenta y ocho horas, se incorporará a la resolución y se notificará a las partes junto con el texto aprobado por la mayoría.

5.- Las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva agotan la vía administrativa y sólo son recurribles ante la jurisdicción contencioso-administrativa.

Artículo 19.- Resoluciones aclaratorias y rectificaciones.

1.- El Comité Vasco de Justicia Deportiva no podrá variar las resoluciones después de firmadas, pero sí podrá aclarar dichas resoluciones. Tal aclaración procederá a instancia de parte interesada, previa petición formulada por escrito dentro del plazo de dos días hábiles a contar del siguiente a aquél en el que la resolución hubiere sido notificada.

2.- Únicamente podrá aclararse algún concepto oscuro y rectificarse cualquier error material de que adolezca la resolución.

3.- Las aclaraciones y rectificaciones deberán realizarse por el Comité Vasco de Justicia Deportiva en el plazo máximo de diez días hábiles a contar desde el día siguiente a la recepción de la solicitud.

Artículo 20.- Publicidad de las resoluciones.

1.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazenak jendaurrean jakinarazi ahal izango dira, beti ere ohorea eta intimitatea babesteko eskubidea errespetatuta indarreko legiari men eginez.

2.- Bidezko interesa dutela egiaztatzen dutenek isilpekoak ez diren Batzordearen liburu eta artxiboetara jo dezakete, eskatzen dituzten kasuan lekukotza edo ziurtagiriak lortzeko.

21. artikulua.- Ebazenak betearaztea

Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ematen dituen ebazenak kirol ekitaldiaren erakunde titularrak betearaziko ditu lehenik, zeina arduratuko baita benetan betearazten dela. Halakorik ezean, Batzordeak berak hartuko du bere gain betearazpena.

22. artikulua.- Batzordearen hizkuntza ofizialak

1.- Kirol Justiziako Euskal Batzordera jotzen duten interesatuek euskara zein gaztelania erabil ditzakete. Pertsona interesatua zein hizkuntza aukeratzen duen, hizkuntza horretan bideratuko da prozedura.

2.- Proceduran interesatu bat baino gehiago suertatzen badira eta horiek hizkuntza ezberdinak aukeratzen baditzutze, prozedura bi hizkuntza ofizialetan bideratuko da.

3.- Pertsona interesatuek hala eskatzen dutenean, agiriak edo agiri-zatiak hizkuntza batetik bestera itzuli beharko ditu Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Itzultzeo betebeharra ez dagokio Batzordeak esku hartu aurreko espaldenteko agiriei.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko oraingo kideak berritzea.

Kirol Diziplinako Euskal Batzordeak indarrean jarraituko du, orain arteko kideekin, «Kirol Justiziako Euskal Batzordea» izenpean, kide berriak izendatzen diren bitartean. Kide berriak hiru hilabete baino lehen izendatuko dira, dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik kontatuta.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lebenengoa.- Kirol-diziplinari buruzko arautegia onartzen duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuaren III. titulua.

Indarrik gabe geratzen da, oso-osorik, kirol-diziplinari buruzko arautegia onartzen duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuaren III. titulua.

Bigarrena.- Klausula indargabetzaile orokorra

Indarrik gabe gelditzen dira dekretu honen aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

1.- Las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva podrán hacerse públicas respetando el derecho al honor y a la intimidad de las personas conforme a la legislación vigente.

2.- Las personas que acrediten un interés legítimo podrán acceder a los libros y archivos del Comité que no tengan carácter reservado y obtener, a su costa, testimonio o certificación de los extremos que indiquen.

Artículo 21.- Ejecución de las resoluciones.

Las resoluciones dictadas por el Comité Vasco de Justicia Deportiva se ejecutarán, en primera instancia a través de la correspondiente entidad titular del evento deportivo, que será responsable de su efectivo cumplimiento. En su defecto, será el propio Comité quien asuma dicha ejecución.

Artículo 22.- Lenguas oficiales del Comité.

1.- Las y los interesados que se dirijan al Comité Vasco de Justicia Deportiva podrán emplear cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma. En este caso, el procedimiento se tramitará en la lengua elegida por la persona interesada.

2.- Si concurren varios interesados o interesadas en el procedimiento y existiera discrepancia en cuanto a la lengua, el procedimiento se tramitará en ambas lenguas oficiales.

3.- El Comité Vasco de Justicia Deportiva deberá traducir los documentos o parte de los mismos cuando así lo soliciten expresamente las personas interesadas. La obligación de traducción no se extenderá a los documentos que formen parte del expediente previo a la intervención del Comité.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Renovación de los actuales miembros del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

El Comité Vasco de Disciplina Deportiva continuará con su actual composición, bajo la nueva denominación de Comité Vasco de Justicia Deportiva, hasta que se produzca su renovación. Esta renovación se producirá en un plazo máximo de tres meses desde la publicación de esta norma en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

Primera.- Título III del Decreto 7/1989, de 10 de enero, por el que se regula el Reglamento de Disciplina Deportiva.

Queda derogado íntegramente el Título III del Decreto 7/1989, de 10 de enero, por el que se regula el Reglamento de Disciplina Deportiva.

Segunda.- Cláusula derogatoria general.

Quedan derogadas cuantas normas de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko urriaren 18an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,

MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de octubre de 2005.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,

MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5646

AGINDUA, 2005eko urriaren 18koa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuarena, Koldo Picaza Cortes jaunak Bizkaiko Lurralde Bulegoko buru kargua utz dezala xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 50. artikuluko 2. idatz-zatian xedatu-takoari jarraituz, eta aipatutako lege horrek ematen dizkidan ahalmenez baliaturik, honako hau

EBATZI DUT:

Lebenengoa.– Koldo Picaza Cortes jaunak Bizkaiko Lurralde Bulegoko buru kargua utz dezala, eta bide de batez, egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-gabetze hau agindu hau 2005eko urriaren 19an sartuko da indarrean.

Hirugarrena.– Agindu honek administrazio bidea agortzen du, eta, bere aurka, aukerako berraztertzeo errekursoa aurkeztu ahal izango da Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, EHAA argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekursoa, Administraciorekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, EHAA argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko urriaren 18a.

Ingurumen eta Lurralde
Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

5646

ORDEN de 18 de octubre de 2005, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se dispone el cese de D. Koldo Picaza Cortes como Jefe de la Oficina Territorial de Bizkaia.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 50 apartado n.º 2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y en uso de las atribuciones conferidas por esta misma Ley,

RESUELVO:

Primero.– Cesar a D. Koldo Picaza Cortes como Jefe de la Oficina Territorial de Bizkaia, agradeciéndole los servicios prestados.

Segundo.– Este cese producirá plenos efectos el 19 de octubre de 2005.

Tercero.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la Orden en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de octubre de 2005.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.